

- Lanbide Moduluetarako aurrematrikulak eta eskabideak martxoaren 15etik maiatzaren 15era egin beharko dituzu.
  
- Eskabidea egitean ondoko dokumentuak entregatu beharko dituzu:
  1. Eskabide-Orria egoki osatuta.
  2. A galdetegia beteta.
  3. B galdetegia beteta.
  4. Lan eskarmentua eta prestakuntza akademikoa eta etengabekoa biltzen dituen curriculum.
  5. Titulazioaren fotokopia eta NANaren fotokopia.

1, 2, 3 eta 4. dokumentuak osatzeko txantiloak gure web orrialdean ([www.ibarezkerra.net](http://www.ibarezkerra.net)) daukazu edo [ibarezkerra@ikastola.net](mailto:ibarezkerra@ikastola.net) posta elektronikoan eskatu.

- Eskabidea posta elektronikoz edo posta arruntaz helarazi ahal izango diguzu, baita ikastolako idazkaritzara bertara helaraziz ere.
  - Posta elektronikoz:
    - 1. dokumentua deskargatu, bete eta e-mailez bidali (formularioan dagoen *e-mailez bidali* goiko botoia sakatuz (zure e-mail kontuak kudeatzeko programa badaukazu, zuzenean atxikituko zaizu e-mailera, bestela formularioa gorde eta e-maila bidaltzean, atxikitu)) eta inprimatu.
    - 2, 3 eta 4 dokumentuak deskargatu, bete eta dokumentuak e-mail batean txertatu.
    - 5. dokumentuak eskaneatu eta e-mailean txertatu.
    - 1. dokumentuan data jarri eta sinatu, eskaneatu eta e-mailean txertatu.
  
  - Posta arruntaz:
    - 1. dokumentua deskargatu, bete eta e-mailez bidali (formularioan dagoen *e-mailez bidali* goiko botoia sakatuz (zure e-mail kontuak kudeatzeko programa badaukazu, zuzenean atxikituko zaizu e-mailera, bestela

formularioa gorde eta e-maila bidaltzean, atxikitu)), inprimatu eta jarri data eta sinadura.

- 2, 3 eta 4 dokumentuak deskargatu, bete eta inprimatu.
  - 5. dokumentuak fotokopiatu.
  - Dokumentu guztiak ondoko helbidera bidali: Ibar Ezkerra Ikastola. Alonso Allende z/g 48920 Portugalete.
  
  - Ikastolako idazkaritzan: 5. dokumentuak (titulazioa eta NANaren fotokopia) ekarri ikastolara. Gainontzeko dokumentuak bertan hartu eta beteko dituzu.
- 
- Eskabidea doakoa da eta ez du behartzen gero matrikula egitera. Matrikulazio prozedura ordenatzeko modu bat besterik ez da.
  
  - Eskabidean interesa izan ditzakezun lanbide modulua/ak adierazi beharko dituzu zure prestakuntza premiak kontutan hartuta.
  
  - Nahiz eta lanbide moduluren bat homologazioz edo baliokidetasunez gainditutzat eman daitezkeen eskabidea egin beharra daukazu.
  
  - Irakasgai bakoitzari edota lanbide moduluari inskripzio zenbaki bat esleituko zaio onartuen eta itxaron-zerrendak egiteko balio izango duena.
  
  - Matrikula irailaren lehenengo hamabostaldian egingo da, behin betiko egutegi eta ordutegiak ezagutu ondoren, eta aurrematrikularen ondorioz ezarritako ordena errespetatuz.
  
  - Urte anitzeko plangintzan aldaketak egonez gero aldeztu aurretik komunikatuko zaizue beharreko erabakiak har daitezzen.